

Euskal prentsa barik, ez da euskal herririk

Por Joan Mari Torrealday

EREko irakurleak nazterren batean ikusia du jadanik «Prentsa Euskaraz» jartzen duen paperen bat. Eta prentsaren aldeko kanpainaren bat martxan dagoela ere antzeman du, edo badaki. Hil honen lehen hamabostaldian eratu da ekinaldi hori, eta egunik seinalatuenak 14, 15 eta 16 izango dira, egun horietantxe egingo bait da euskarazko aldizkarien aldeko diru-eskaera. Kanpainako ekintza guztien bidez euskarazko prentsaren premia aldarrikatu nahi da, hots, euskal prentsarik gabeko euskal herririk ez dugula nahi.

Euskal prentsaren beharraz komentaturik, eta euskal prentsa beronen miseriaz jabeturik, hiru helburu jarri zaizkio kanpainari: herria sensibilizatzea, laguntza ekonomikoa eskatzea, eta harpidedunak lortzea.

Herria sensibilizatu

Beherakada handia egin du zenbait euskal aldizkarik azken bost urte hauetan. Eta ez errurik gabe. Autokritika beharretan dago euskal prentsa: ez du asmatu, hanka-sartze handiak egin ditu. Bale. Baina nork esan lezake, eskua bihotzaren gainean duelarik, horregatik — batez ere horregatik, edo horregatik bakarrik — denik euskarazko prentsaren oraingo egoera tamalagarria? Erruak askoz sakabanatuago daude. Egoera orokorrago baten ondorio delakoan nago ni. Euskara nola dago, bestela,

Euskal Herrian? Euskara tresna edo gai bezala duten egintzek, egiturek, instituzioek lanak dituzte irauteko ere. Euskal prentsaren egoera, niretzat, gure «euskal» herriaren egoera askoz zabalago baten erreflexu edo ispilatzea da. Doble kezkatzen nau, horregatixe, euskarazko aldizkarien egoerak. Euskal aldizkarien krisia Euskal Herriaren krisia da, azken batean.

Testuinguru honetan, kanpaina honet lehen jokabide bezala ez dugu errebindikapena hartu (lekuz kanpo ez dagokeena), baizik eta sensibilizatzea, mentalizatzea, kontzientziaraztea. Euskal Herriko pareta eta komunikabide guztietatik zera aldarrikatu nahi diogu herriari, alegia, euskarazko prentsaren iraupena biziki gauza inportantea dela, euskara dugula gure nortasunaren ezaugarri; eta bata zein bestea arriskutan dauzlagula.

Laguntza ekonomikoa eskatu

Etxeko pobreenaren eta baztertuenaren alde dator kanpaina. Euskara gaizki dago, eta okerrago beronen komunikabideak. Inongo laguntzarik gabe dago euskal prentsa: ez ofizialik, ez bestelakorik. Okerrago: idazle askok, irakurle askok, publizitate-amaile askok muzin egin diote. Dirurik ez, zorrak bai. Zorrak bizitzeko. Kondizio hauetan nola produktu onik aterara?

Sinistu ezina da zein kondizio ekonomikoa miserabletan lanegiten duen euskarazko prentsak. Produktuaren kalitateak, sofritzen du, noski, baina askoz gehiago bertako langileak.

Harpidedunak lortu

Hona hirugarren helburua, aurrekoaren bixkia. Abonatuak dira gure artean edozein aldizkariaren sostengurik iraunkorrena. 4.000 harpidedun berri aldizkari bakoitzarentzat inguratu nahiko litzateke ekinaldi honen bidez. Lan-sistema normaliki montatzeko ahalbidea emango liguke horrek. Posible ote?

Euskal hiztunen artean ez dira ehuneko bostera iristen euskarazko prentsaren hartzaileak. Oso guti. Posible da, beraz, harpidedunak ugaltzea. Beharrezko da harpidedunak ugaltzea aunkarazko aldizkarien iraupenerako.

Zer emango ote du kanpaina honen? Ez daki inork, apostu baten parekoa da. Balantzea egiteko ordua ere etorriko da, eta orduan ikusiko dugu. Badakigu ongi ez duela euskal prentsaren arazoa goitik behera konponduko. Baina lorpen emankorrik ekarriko du, jendeak erantzuten badu, eta horien artean ez dira estimu gabekoak izango, zenbait aldizkari larrialdi ekonomikotik ateratzea, hobetzeko bidean jartzea, lan-kondizioak hobetzea, eta honek denonek adieraziko lukeen herriaren eskerona. ■